Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Luziano Arenaza Aginagalde

Eskoriatza, Gipuzkoa (1930-2018)



Aurkibidea

Biografia



Mendiola auzoko Txarena baserrian jaio zen. Ama etxekoa eta aita auzo bereko Atxurdin baserrikoa zen. Zazpi seme-alaba izan zituzten. Marianistekin sei urte eta San Viator ikastetxean beste urtebete ikasi eta gero, Arabako Gamiz herriko baserri batean urtebete pasa zuen erdara ikasten. Soldadutza egin eta gero, hiru urtez basolanetan jardun zuen. Gero eraikuntzako pioigintzan hasi, eta etxeak egiten ikasi zuen. Egurrezko teilatu egiturak ere egiten zituen. Zazpi urtez jardun zuen eraikuntzan. Gero Copreci kooperatiban sartu zen eta bertan lan egin zuen erretiroa hartu arte.

Zintak

ESK-061

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2010-03-01
- **Iraupena**: 93 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Marianisten eskola eta behiak

- **Erref**: ESK-061/002
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 00:01:19. **Bukatu**: 00:04:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:
Eskolan marianistetan ibili zen. Haiek behiak zeuzkaten eta lursail asko. Eskolan ikastearekin batera, behizain ere egon behar izaten zuten. Patatarentzako botikarekin pozoituta hil ziren behiak.

2. Arabara erdaraz ikastera joan eta ikasi ez

- **Erref**: ESK-061/004
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:08:06. **Bukatu**: 00:09:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Arabara tripa-truke joan zen, erdaraz ikastera, baina ez zuela gehiegi ikasi dio. Gamizko baserri baten egon zen. Ohitura zen, inguruko asko ere joanak ziren.

3. Morroi joan zeneko bizimodua Araban

- **Erref**: ESK-061/005
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:09:20. **Bukatu**: 00:10:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Ugazabarekin lursailera gerturatzen zen idiekin, goldatzera. Hark erein egiten zuen behor batekin. Domeketan mezetara joaten ziren.

4. Gerra garaiko bonbak, sirena eta babeslekuak

- **Erref**: ESK-061/009
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:20:25. **Bukatu**: 00:22:49
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Aldameneko baserrira Untzillatik bonbak bota zituzten gorriek. Gerra garaian, aitari lanpostua eman zioten, gorriak zetozenean sirena jo zezan. Babeslekuak non zeuden kontatzen du.

5. Soldaduak eta preso hartutakoak

- **Erref**: ESK-061/010
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:22:49. **Bukatu**: 00:25:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:
Aitzorrotzen nazionalak zeuden eta Aretxabaleta aldetik gorriak. Ez du borroka gogorrik gogoan. Apotzagatik hiru mutil gazte lotuta ekarri zituztela gogoan dauka, eta Degurixara bidali zituztela.

6. Gerra osteko gosea

- **Erref**: ESK-061/013
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:28:10. **Bukatu**: 00:29:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Gerra ostean, gosea pasatu zuten, errotak itxita zeudelako. Arrasateraino joan behar izaten zuten errotara, baina zatia kentzen zieten.

7. Artoa, garia eta patata entregatu behar

- **Erref**: ESK-061/014
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:29:30. **Bukatu**: 00:31:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Artoa, garia eta patata entregatu egin behar izaten zuten. Auzo-alkatea ez zuten lagun auzokideek eta zailtasunak sortzen zizkien. Abadearekin gertatutakoa kontatzen du.

8. Gari-jotzea behiekin eta trailuarekin

- **Erref**: ESK-061/018
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 00:37:36. **Bukatu**: 00:40:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Auzotarrek makina bat zeukaten garia jotzeko. Behiekin eta trailuarekin larrainak egiten zituzten etxean. 1942an garia jotzeko makina erosi zuten hainbat baserriren artean. 1952an garia ereiteari utzi egin zioten.

9. Garia jotzeko makina pisutsua

- **Erref**: ESK-061/020
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:42:05. **Bukatu**: 00:43:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:
Garia jotzeko makinarekin nola lan egiten zuten kontatzen du. Hiru pare ganadu erabiltzen zituzten makina mugitzeko.

10. Basoan lanean

- **Erref**: ESK-061/022
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:43:21. **Bukatu**: 00:45:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Soldadutza Afrikan egin zuen. Handik etorrita, basoan aritu zen lanean. Argitik argira lan eginda, bost duro irabazten zituen. Gaztainondoa, haritza eta antzekoak bota eta pinua sartzen aritzen ziren; udan, berriz, basoak garbitzen.

11. Egurra markatzeko teknika

- **Erref**: ESK-061/024
- **Iraupena**: 0:03:34. **Hasi**: 00:48:55. **Bukatu**: 00:52:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:
Egurrezko teilatuak egiten zituzten. Baserriko egur sendoei forma ematen aritzen zen. Bergarako Uberan ere egin zuten teilatu bat, posterik gabekoa. Egurra markatzeko, lastoa erre, poto batean urarekin nahastu eta haria bertan zikintzen zuten. Arkatzarekin ere markatzen zituen.

12. Erromeria gustukoenak

- **Erref**: ESK-061/027
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 01:00:16. **Bukatu**: 01:02:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Auzoetako erromerietara joaten ziren (aipatu egiten ditu). Gutxi lo eginda lanera joan behar izaten zuen. Gustukoenak aipatzen ditu.

13. Feria gustukoenak

- **Erref**: ESK-061/028
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 01:02:14. **Bukatu**: 01:03:57
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Arrasateko feriara beti joaten zen, lantegian ari zenean ere. Zumarragara ere joaten zen tarteka; gerora beti. Abadiñora urtero joan izan da. Lizarrara ere joan izan da.

14. Zorrotzako feria

- **Erref**: ESK-061/029
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 01:03:57. **Bukatu**: 01:06:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Ganadua Zorrotzan erosten zuen, baina ingurua parke natural izendatu zuten eta feria kendu egin zuten. Feria eta hiltegia gertu zeuden.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-04

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com